

KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN		NAFARROAN	
0	0	122	2
positibo berri	hildako	positibo berri	hildako
2.313	7	8.812	80
positibo guztira*	hildako EAEn	positibo guztira	ospitalizatuta
*Hernanin 55 Astigarragan 20		Sendatuak EAEn: 17.303 Naf.: 4.437	

Bigarren Tratu Onen Foroa eramango da aurrera asteazkenean behar kolektiboak erdigunean jarrita

Foroa Zoom bidez egingo da maiatzak 27an, 18:00etatik 19:30etara, eta plaza mugatuak izango dira. Izenemateko 'hernanitoherri@gmail.com' helbidera idatzi behar da.

HERNANI ARREMANITZ

Itxialdian egoera berriak bizi izan dira, baita maila emozionalean ere. Hainbat eta hainbat izan dira emozioen zurrunbiloan jira-bueltaka ibili direnak, mugimendu hori konkretuki zerk eragiten zuen jakin gabe ere. Horrexegatik Tratu Onen Herria egitasmoko kideek tresna batzuk prestatu dituzte, emozioen gorra-behera horien atzean dauden beharrak identifikatzeko.

Tresna horiek Bigarren Tratu Onen Foroan jarriko dituz-

te praktikan, asteazkenean, 18:00etatik 19:30etara *Behar Indibidualetatik, behar kolektiboe-tara* izenburupean. Arremanitzek, Berdintasun Kontseiluak, Hernaniko Udalak eta Tratu Onen Herriak antolatzen dute.

Foroan, Zoom bitartez, eskainiko dira alde batetik, bideo labur bat Berexi Art-ekin lan-kidetzan; eta bestetik, *eneritz. ilustratzaile*-aren opari lagungarri bat. Zerk egiten dit ongi? Zeren falta sumatu dut? Zer egin dezaket egoera honetan ahalik eta osasuntsuen egoteko? Gisa

honetako galderen aurrean sostengu bat izan daitezkeen material atseginak partekatu nahi dituzte hernaniarrekin eta honetarako «Zoom bidezko saio goxo bat prestatu dugu».

Eta «zaintzen krisia horren agerian geratu den garai honetan, geure komunitatean ematen ari diren beste errealitateei begiratzeko tartea ere» hartuko dute. «Zein behar berri sortu dira? Zeintzuk areagotu dira? Zertarako gaude antolatuak eta zertarako ez? Komunitateak egiten gaitu indartsu eta ezinbestekoa izango da komunitatearen beharrei ere erreparatzea».

Talde txikietan arituko direnez, eta giroa bermatzeko, plaza mugatuak izango dira eta oraingo Foro honetan *hernanitoherri@gmail.com* helbidera idatzita eman beharko da izena. **K**



Biterin, Hernaniko Tratu Onen Mapa ikusi daiteke.

Foru Aldundiak 'Gipuzkoanatura' web berria abiarazi du

Informazio praktikoa eta eguneratua eskaintzen du parke naturalei, bide homologatuei eta ingurumen hezkuntzako jardueri buruz.

URUMEA ALDUNDIA

Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatuta, *Gipuzkoanatura* webgune berria (www.gipuzkoanatura.eus) martxan dago. Helburu nagusia da herritarrei parke naturalei, bide homologatuei eta ingurumen hezkuntzako jardueri buruzko informazio praktikoa eta eguneratua ematea. «Tresna oso bat da, eta, batez ere, lurraldean barneratzeko eta bertan dauden altxorak ezagutzeko gonbidapen bat, naturaren, paisaiaren eta kulturaren ikuspuntutik». nabarmendu zuen Imanol Lasa Ekonomia Sustapeneko,

Turismoko eta Landa Ingurune-ko diputatuak.

Lehen begiratuan bidezidorrak Lehen begiratuan, erabiltzaileek bidezidorren bilatzaile bat aurkituko dute. Bidezidorrok Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendaritza Nagusiak diseinatu eta inbentariatu ditu Gipuzkoako Mendi Federazioarekin lan-kidetzan. Ibilbide bakoitzaren maparekin batera, iraupenari, zailtasun mailari, distantziari eta gainerako xehetasunei buruzko informazioa ikus daiteke. Berrikuntza nagusietako bat da dagokion tracka ordenagailura

edo GPSra jaisteko aukera eskaintzen dela, guztira 171 ibilbide desberdin, gehienak publiko guztientzat eskuragarriak. Izan ere, Gipuzkoan 1.500 km-ko bidezidor homologatu daude.

Bost parketxe daude

Halaber, webguneak Gipuzkoako Parketxe Sareak antolatutako hezkuntza eta ingurumen aisialdiko jardueri buruzko informazioa eskaintzen du, bai berrien atalean, bai agendan. Pandemiak iraun duen bitartean itxita egon diren parketxe-tako zentroak dagoeneko prestatzen hasiak dira programazioak, atek aurki irekitzeko asmotan. Gipuzkoan bost parketxe daude (Arditurri, Iturraran, Lizarrusti-Barandiaran, Anduetza eta Arantzazu), zehazki Oiartzunen, Aian, Ataunen, Zegaman eta

Oñatin. Aldundiak bultzatzen duen fundazioan, bost udalerririk ere parte hartzen dute. Batez beste, 50.000 bisitari baino gehiago hartzen dira urtean.

Natur parkeetan sartuta dago Aiako harria

Natura parkeak Gipuzkoako lurraldearen %15 baino gehiago dira. Natura parkeei eta biotopoei eskainitako atalean, Aizkorri-Aratz, Aralar, Pagoeta, Aiako harria, Iñurritza, Deba-Zumaia eta Leitzarango gune babestuetan dauden bidezidorrak eta jolas eremuak erakusten dira.

Biotopo babestuak natura parkeak baino eremu txikiagoak dira, baina natura balio oso garrantzitsuak dituzte horiek ere. Natura parkeen aldean, Gipuzkoako naturagune babestuen azaleraren %1,8 baino ez dira.

Hala ere, hedadura txikia izanagatik, kualitatiboki funtsezkoak dira intereseko espazioen eta espezieen kontserbazioari egiten dioten ekarpenarengatik. Euskal Autonomia Erkidegoan deklaraturako bost biotopo babestuetatik hiru Gipuzkoan daude; horietatik bi itsasertzekoak dira (Iñurritza eta Deba-Zumaia itsasertzeko zatia) eta hirugarrena ibaiko (Leitzarango).

Azkenik, harremanetarako helbide batekin batera, informazio praktikoa eskaintzen da naturaguneak babesteko, mendian ibiltzeko eta larrialdietarako: natura zaintzea, aholkuak, seinaleak, bidezidor motak... Web orria martxan dela aprobeztatuz, Aldundiak dei egiten die gipuzkoarrei, uda honetan, lurraldeko landa inguruneaz eta bertako irakaskuntzez gozatzea. **K**

Itxas-Buru Sagardotegia
Ekainaren 4an irekiko ditugu ateak
Ostegun gauetik igande eguerdira. Covid-19 egoera dela eta, arauak betetz, beharrezkoa izango da mahaia erreserbatzea. Aldez aurretik, mila esker.
Osñaga Auzoa
20120 HERNANI
TEL. 943 556 879
www.itxasburusagardotegia.com

OGI BERRI OKINDEGIA
Rosa Morla
Kale Nagusia, 31
20115 ASTIGARRAGA
Tfn- 943 55 41 04 - 618 269 314
rmorlaluengo@yahoo.es

AINHOA
Janaridenda
Nagusia 20, Astigarraga
943 55 12 93

GNOMOS
PAPER DENDA
Pelotari, 11 Astigarraga
943 55 38 05

GAUR Temperatura koska pare bat gorago eta ostarte zabalak irekiko dira. Temperaturak gora egingo du eta maximoak, oro har, 20 eta 22 °C artekoak izango dira. **Min.13° / Max.20°**

BIHAR Aldaketa handirik ez da espero. Goizean, lainoguneak gailenduko dira momentu askotan eta arratsaldean urdingune politikak irekiko dira. **Min.13° / Max.20°**

DOBERA EUSKARA ELKARTEA

Hernaniko Udala

Astigarragako Udala

Dobera Udala

Goizuetako Udala

Aranoko Udala

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) Egunez: **A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** Gaez: **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**

EUSKAL GOBIERNUA

Gipuzkoako Foru Aldundia

DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK

Azeri Bila lasterketa aurten ez da antolatuko osasun krisiagatik

Espero zen albiste atzo egin zen ofiziala eta ekainaren 20an korritzekoa zen lasterketa bertan behera geratu da.

HERNANI-ASTIGARRAGA KIROLA

Azeri Bilaren 22garren edizioaren antolakuntza buru belarri murgilduta egon behar zuten une honetan antolatzaileak eta atletak parte hartzeko izena ematen, baina antolakuntzatik atzo jakinarazi zuten ekainaren 20an egitekoa zen Azeri Bila lasterketa (haur eta helduena) bertan behera geratu direla. Arrazoia esperotakoa da, Koronabirusak sortutako osasun-krisiaren ondorioz.

Momentu honetan kirol txapelketa guztiak daude geratuta Euskal Herrian eta Espainian. Ez daude martxan ez Ligarik, ez eta lasterketarik ere bakar-kako kiroletan. Hori bai, kirolari askok hasi dituzte entrenamenduak eta etzi hasiko den fase berriari ia edozein ordutan egin ditzazkete entrenamendu saioak.



Lasterkariak ez ditugu Kale Nagusitik behera ikusiko.

Erremontea izango da aurrenekoa martxan jartzen, ekainaren 20an hain zuzen Futbol profesionalaren hasieraren zain, erremontea izango da aurrenekoa martxan jartzen Hernaniko Galarreta frontoian. Azkenak izan ziren geratzen eta lehendabizikoak aktibitatea hasten, martxoaren 14an azkenengo jaialdia eta gero.

Aurten, ekainean, Galarretak 50 urte beteko ditu frontoia ireki zela eta Oriamendi2010

enpresak ez du urteurren berezi hori ospatu gabe utzi nahi, nahiz eta osasun krisi baten erdian tokatu ospakizuna.

Ekainaren 20an, larunbatean, Azeri Bila korritzekoa zen egun berean, irekiko ditu atea txapelketa baten hasierarekin.

Txapelketa hori EITBren babesarekin antolatuko da eta sei bikotek jokatu dute hiruko bi taldetan banatuta. Ondoren, finalerdiak jokatu dira eta azkenik, finala. **K**

Argituta, balaz hildako betizuaren kasua

Joan den igandean Goizuetan, balaz hildako betizuaren kasua argitu dela jakinarazi da Ttipi-Ttapa aldirian.

GOIZUETA GERTAERA

Aurreko igandean, betizu bat aurkitu zuten tiroz hilda Goizuetan, eta Ttipi-Ttapa aldiriarekin arbera, «kasua argitu da». Adierazi dutenez, «Foruzaingoak ikerketa abiatzarekin batera, herritar bat Iruñeko komisaldegira deitu zuten, galdeketa egiteko asmoz». Gainera, Ttipi-Ttaparen arbera, galdeketa, tiratzaileak egindakoa aitortzea erabaki zuten, «abokatuak kontrakoa esan arren».

Tiratzaileak jakinarazi omen du, «pentsatu gabe» egindako ekintza izan zela. Gertatutakoari buruzko xehetasunak emateaz gain, «egindakoa onartu eta bere gain» hartu zuela ere aipatu dute Ttipi-ttapa aldirian. «Ehizarako erabiltzen dituen bi eskopetak eraman eta ez zuela deus jakin nahi» adierazi

zuen. Horrekin batera, «barkamena eskatu eta, ahal den heinean, eragindako kaltea ordaintzeko prest» agertu zen.

Tiratzailea oraingoz libre, baina karguekin

Aipatutako tiratzailea «libre» dago, baina karguak dauzka, izan ere, «sei eta hemezortzi urte arteko espetxe zigorra ezar dakiokete».

Betizuaren nagusia «hase-rrer» agertu zen, eta jakinarazi zuten gainera, «pena haundiz» jaso zuela albiste. Ez zuen sekula bizilagun batekin honelako tirabirarik izan, hala ere, tira-

Tiratzailea oraingoz libre dago, baina karguekin

tzaileak ekintzak zuzendu izana begi onez jo du eta guztia «lasaitasunez» bukatzea espero du.

Ttipi-ttapa aldiriarekin arbera, Foruzaingoak «halako gertakariak dauden guneetan neurri sendoak» hartzea aztertzen ari dela kontatu dute. **K**

Mezen ordutegiak argitaratu dira

HERNANI ELIZA

Normaltasunera bueltatu arte, igandetan 09:00etan eta 12:00etan San Joan Bataiatzailea parrokiari ospatuko dira mezak. 10:00etan Ereñotzun eta 11:00etan Floridan. Astegunez, astelehenetik larunbatera, hiletak daudenean bakarrik ospatuko dira San Joan Bataiatzailea parrokiari.

'Txillardegia-Hausnartu' sarietara lanak aurkezteko epea ireki da

Sarien 13. edizioaren deialdia zabaldu dute Soziolinguistika Klusterrak eta Euskal Herriko Unibertsitateak, irailaren 18ra arte.

URUMEA EUSKARA

Soziolinguistika Klusterrak eta Euskal Herriko Unibertsitateak elkarlanean antolatzen duten Txillardegia-Hausnartu Soziolinguistika Sarietarako deialdia zabalik da.

2008garren urtean sortu zenetik, lehiaketaren helburu nagusia euskal soziolinguistika teorikoaren eta metodologikoaren garapena eta berrikuntza da. Euskal soziolinguistikaren ikerlarien lana bultzatzea eta ikerlari berriak eremu honetara biltzea bilatzen da.

Euskararen soziolinguistika arloko ikerketa zein hausnarketarako lanak aurkez daitezke sarie-

tara, beti ere oinarri zientifikoa dutenak edota zientzian oinarritutako hausnarketak proposatzen dituztenak izanik.

Diziplina desberdinetatik proposatutako lanak izan daitezke gainera; soziologiari, hizkuntzalaritzari, zientzia politikoetari, psikologiari, antropologiari edo komunikazio-zientzietari, besteak beste. Beti ere oinarri zientifikoa izango dute edo zientzian oinarritutako hausnarketak izango dira.

Txillardegiren omenez sortua egin zuen lanagatik

Txillardegia-Hausnartu Soziolinguistika Sariak izenarekin, Jose Luis Alvarez Enparantza Txi-

llardegi euskal soziolinguista haundia omendu nahi da, euskararen inguruko ezagutza soziolinguistikoa eraikitzen egin zuen lanagatik.

2.000 euro, 1.300 euro eta 1.000 euroko sariak

2020ko deialdian lanak aurkezteko epemuga 2020ko irailaren 18a izango da eta honakoak izango dira irabazleentzat sariak: Lehen saria: 2.000 euro eta Jose Luis Zumetaren litografia bat; Bigarren saria: 1.300 euro; Eta hirugarren saria: 1.000 euro.

Informazio osagarria, xehetasunak eta deialdiaren oinarriak: <http://www.sociolinguistika.eus/txillardegia-hausnartu> webgunean ikusi eta irakurri daitezke. Lanak emailez bidaliko dira ondoko helbidera: txillardegiahausnartu@soziolinguistika.eus. **K**

ESKERTZA
Joxe Ramon Beroitz Arrozpide
Orain egun gutxi hil zen

Joxe Ramonen emazteak, seme-alabek eta gainerako ahaideek eskerrak eman nahi dizkizuegu modu batera edo bestera egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi eta gure ondoan izan zareten gutztoi.

BIHOTZ-BIHOTZES BESARKADA HANDI BANA, ETXEKOEN IZENEAN.

Hernanin, 2020ko maiatzaren 24an

IRAGARKI MERKEAK

Sukaldari bat behar da Hernaniko enpresa industrial batean. Zereginak: bazkariaren prestaketa eta lantokiko garbiketa. Taldeen janari prestaketan aritua izatea baloratuko da. Arduratsua. Hasiara data: 2020/06/01. **Deitu: 687 756 360**

Irakasle titulatuak lehen eta bigarren hezkuntzako klase partikularrak emateko prest. Online nahiz presentzialak. **Deitu: 943 12 41 28 (ez bagaude erantzungailuan utzi zure mezu).**

Emakumea behar da etxeko lanak egin eta amona zaintzeko goizetan. **Deitu: 635 005 934 / 618 913 477**

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**